

I. ERANSKINA.- EGOITZAZKO ATENTZIOAN GILTZARRI DIREN PROZESUETAKO ESPEZIFIKAZIOAK ETA PRAKTIKA ONAK.

Enpresa adjudikatarioak Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean ematen dituen egoitza-zerbitzuen antolamendu-kulturan eta eguneroko funtzionamenduan txertatu beharko ditu adineko pertsona dependentziadunen egoitzazko atentziorako giltzarritzat jotzen diren prozesu eta jarduketa-eremuetarako praktika onak; hain zuen, jarraian zehazten diren hauek:

1.- PROZESUA: EGOITZAN SARTZEA ETA BERTARA EGOKITZEA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— Aldez aurretik elkarrizketa bat egitea erabiltzailea izango den pertsonarekin eta, behar denean, haren familiarekin.

Enpresa adjudikatarioak beren Proposamen Teknikoan sartu beharko du Sartzeko Elkarrizketaren eredia.

— Sartu aurreko elkarrizketan eta hasierako dokumentazioan oinarrituta, Artatzeko Banakako Plan bat prestatzea, behin-behinekoa, egoiliar berriaren beharrak eta eskaini behar zaizkion lehenengo zaintzak zehazten dituena.

— Egoitzan sartzeko eta bertara egokitzeko prozesua zehazten duen dokumentu bat edukitzea, bai eta hori betetzeaz arduratuko den pertsona identifikatu bat ere.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Sartzeko Protokoloaren proposamena.

2.- PROZESUA: ARTATZEKO BANAKAKO PLANAREN EBALUAZIOA ETA DISEINUA.

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— ABPak lan-talde multidisziplinario batek egiten ditu, taldean arlo hauetako adituek parte hartzen dutela: Osasuna, eguneroko bizitzako zainketak eta erlazio soziofamiliarak.

— ABPek, gutxienez, ondoko atal hauek edukiko dituzte:

Ebaluazio funtzionala, fisikoa, mentala eta soziofamiliarra.

Ebaluaturiko arloetako helburuen, arduradunen eta epeen definizioa.

Enpresak adjudikatarioak, bere Proposamen Teknikoan, ABPen eredu ezberdinak sartu beharko ditu (behin betikoa, behin-behinekoa, etab.), eta atal hauek eduki beharko dituzte gutxienez: ebaluazioa fisikoa, funtzionala, mentala eta soziofamiliarra, eta helburuak, arduradunak eta epe estimatuak.

— Egoiliar berri ororen ABP osoa prestatzea, zentroan sartzen den egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

— Zentroan sartuak dauden egoiliar guztien ABP osoa prestatzea, gehienez ere bi urtebeteko epean.

— ABP guztiak gutxienez urtean behin eguneratuko eta dokumentatuko dira.

— ABPetan urteko berrikuspen batetik bestera zentroko arlo desberdinetako profesionalak egiten dituzten etengabeko doikuntzak erregistratzeko sistema bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du ABPen Doikuntzak Erregistratzeko ereduak.

— Eskatzen duen egoiliarri edo erreferentziako pertsonari ABPa osorik edo partzialki jakinaraztea, betiere egoiliarriaren intimitaterako eskubidea errespetatuz.

3.- PROZESUA: ZAINKETA PLANA AURRERA ERAMATEA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

OROKORRA

— Egoiliar bakoitzaren ABPa beteko dela segurtatzea.

— ABPan aurreikusitako zainketetan aldaketak egiteko, erizain arduradunaren edo beste koordinatzaile asistentzia kualifikatu baten baimena behar da, eta aldaketak erregistratzeko sistema bat dago.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du ABPan aurreikusitako zainketetan egindako Aldaketak Erregistratzeko ereduak.

— Egoitza-zentroko profesionalen erantzukizunpekoak dira zainketak beste norbaitengan delegatuz gero (praktiketako langileengan, boluntarioengan, senitartekoengan, laguntzaileengan) hortik etor litezkeen ondorioak.

ELIKADURA

— Zentroko medikuaren edo horretarako izendaturiko erizainaren baimena beharko da honako hauek egiteko:

Egoiliarri bere gelan jaten emateko.

Ahara jaten emateko.

— Elikadura autonomoan nahiz urgatzen gertatzen diren gorabeherak erregistratu egingo dira.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Elikaduran Gertaturiko Gorabeherak Erregistratzeko ereduak.

— Dieta bereziak eta nutriziozko gehigarriak medikuaren aginduz dispentsatuko dira.

HIGIENE ETA APAINTZE PERTSONALA

— Egoiliarrei ondoko zaintza hauek egunero emateko programatzea eta segurtatzea.

Behar duten gizonei bizarra moztea.

Ahoko higiea (egunero behin, gutxienez).

Garbiketa pertsonala.

— Ondoko zainketa hauek aldizka eta gutxienez hilean behin egiteko programatzea eta segurtatzea:

Behar duten emakumei aurpegiko depilazioa egitea.

Oinetako eta eskuetako azazkalak moztea.

Ile-apainketako eta podologiako zerbitzuak jaso ahal izatea.

Protesiak eta ortoprosesiak mantentzea eta garbitzea.

— Higieneko premia handiagorik ez dagoenean, astean bitan gutxienez gorputzaren higie osoko dutxak/bainuak hartzen dituela bermatzea, betiere burua astero garbituko dela bermatuz.

ARROPA, OHEA ETA JANTZIAK

— Egoiliarren erabiltzen duen arropa identifikatzea.

— Barruko arroparen egoera egunero begiratzea eta, beharrezkoa denean, aldatzea.

— Kanpoko arropa gutxienez astean bitan aldatzen dela bermatzea.

— Egoiliarren garaiari eta eguraldiari dagokion arroparekin eta behar bezala jantzita daudela bermatzea.

— Arropa garbitzen, lisatzen eta konponketa txikiak egiten zaizkiola bermatzea (eguneroko erabilerak eragindako narrio txikiak).

— Oheko arropa eta toallak gutxienez egunero aldatzea, eta premiek hala eskatzen duten aldiro.

ESFINTERREKO INKONTINENTZIA

— Erizainak egoiliarren osasun-historian erregistratuko du zertzelada hau: Inkontinentzia mota, esku-hartzea eta produktu indikatuak.

— Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Inkontinentzia Erregistratzeko eredia.

— Inkontinentzia duten pertsonen higie egokia ziurtatzea.

— Inkontinentzia itzulezina tratatzeko, xurgagarriak modu programatuan erabiliko dira, oinarrizko ordutegian eta eredu indikatuan, eta hori erregistratu egingo da.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Xurgagarrien Erabilera Programatua Erregistratzeko eredia.

— Modu programatuan eta eskatzen dutenean komunera eramatea beren kabuz komunera joaterik ez duten pertsonak, bai inkontinentziarik ez dutenak, bai esfinterren kontrol erlatiboa dutenak.

LAGUNTZA TEKNIKOAK

— Aulki gupildunak, ibilgailuak eta bastoiak egoiliarren jabetzakoak eta erabilera pertsonalekoak izango dira. Horien jabeak argi eta garbi identifikatuko dira.

— Edonork erabiltzeko laguntza teknikoak, egoitza-zentroaren izenean matrikulatuak, egoera puntual edo behin-behinekoetarako erabiliko dira.

Laguntza teknikoak mantentzeko lana eta higie programaturik egingo da, eta egindakoan erregistratu egingo da. .

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Laguntza Teknikoen Mantentzioa Erregistratzeko eredia.

MURRIZKETA FISIKOAK

— Erabileren eta jarraibideen protokolo bat eta arduradun identifikatu bat edukitzea

zentroan.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Murrizketa Fisikoen Protokoloaren proposamena.

— Murrizketen erregistro bat edukitzea, zeinetan jasoko baitira erabiltzailearen identifikazioa, murrizketa mota, arrazoia, hasierako data eta errebisioaren data, medikuaren indikazioa eta sinadura, familiari igorritako informazioa eta familiaren erantzuna, senitartekoaren sinadurarekin.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Murrizketa Fisikoak Erregistratzeko eredia.

ATENTZIOA ETA INTIMITATEA

— Praktika onaren eskuliburu bat edukitzea, zentroan bertan zuzeneko atentziorako pertsonalak parte hartuz egindakoa.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Praktika Onaren Eskuliburuaren eredia.

— Eskuliburua publikoa eta nahitaez betebeharrekoa izango da, eta periodikoki berrikusiko da.

— Eskuliburuak gai hauen inguruko arauak nola aplikatu zehaztuko du:

Erabiltzaileen eskubideak errespetatzea.

Intimitatea eta duintasuna.

Segurtasuna.

Praktika profesional onez jardutea zainketa pertsonalak egitean.

ERREFERENTZIAKO PROFESIONALA

— Erabiltzaile bakoitzak erreferentziako profesional identifikatu bat izango du, zeinek jakingo baititu egoiliarren zainketen planaren xehetasunak, haren gorabehera pertsonalak eta pertzepzio subjektiboa.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Erreferentziako Profesionalak Erregistratzeko eredia.

— Erreferentziako profesionalak aktiboki parte hartuko du zainketen planaren inguruko erabakietan eta berrikuspenetan.

— Zainketen planean bere ustez egin behar diren aldaketak bultzatuko ditu erizainaren aurrean.

GORABEHERAK ETA ERREGISTROA

— Egunka eta txandaka antolatutako erregistro orokor bat edukitzea, hauteman diren gorabeherak jasotzeko, txanda bete duten laguntzaileek sinatua.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Gorabeheren Parteetarako Koaderno/Erregistroaren eredia.

— Erizainaren indikazioz hala behar duten erabiltzaileen erregistro espezifiko bat edukitzea, beharrezko alderdi espezifikoak jasoko dituen.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du erregistro horren eredia.

— Eginkizunak eginkizun/egoiliar/laguntzaile bakoitzarentzat programatuz esleitzea, horrela eginkizunen jarraipena egin ahal izateko.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Laguntzaileen Eginkizunen Protokoloaren proposamena eta erregistroen eredia.

— Gaueko bisitak programatzea, erabiltzaileak eta bete beharreko eginkizunak zehaztuz.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Gueuzko Bisiten Programazioaren proposamena.

ARLOA: ARLO SOZIALA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— Egoiliar bakoitzaren historia soziala edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Historia Sozialaren eredia.

— Erabiltzaileak babesik gabe daudenerako (erabakiak hartzeko ezgaitasuna, tratu txarrak, hirugarrenengandiko abusua), zein irizpideri jarraitu zehazten duen dokumentu bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du egoiliarrak lege ezgaitzeari buruz Jarduteko Protokolo edo Gidaren proposamena.

— Euskarri soziofamiliarrik ez duten erabiltzaileak, pertsona bakartuak, pertsona baztertuak identifikatzea, eta egoera horiek hobetzeko esku hartzea.

— Ezgaitzea behar duten erabiltzaileen eskubideak zaintzea, horrek tutoretza automatikoki bere gain hartzea inplikatu gabe.

— Iradokizunei eta kexei erantzuteko protokolo bat edukitzea, protokolo horren arduraduna identifikatuta, eta erregistro batean jasotzea izandako kexak eta iradokizunak, bai halaber haiei eman zaien trataera.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Erreklamazioak eta Iradokizunak Jasotzeko eta Tratatzeko Protokoloaren proposamena.

— Egoitzan boluntarioei buruzko protokolo idatzi bat edukitzea, boluntarioen arriskuak estaltzeari buruz lege ezarritako eskakizunak betetzen dituen, protokoloaren arduraduna identifikaturik.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Boluntarioen Protokoloaren proposamena.

— Familien parte-hartzea sostengatzeko eta sustatzeko programa bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Familien Parte-hartzea Sostengatzeko eta Sustatzeko Programaren proposamena.

ARLOA: ARLO PSIKOLOGIKOA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— Interbentzio psikologikorako programak edukitzea, estimulazio kognitibora eta antsietatea, depresioa eta erlaziorako zailtasunak lantzerantz zuzenduak. Programek erabiltzaileak barruan hartzeko irizpideak definituko dituzte, eta erabiltzaileek programa horietan egiten duten bilakaera haien historian jasoko da.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Interbentzio Psikologikorako Programa Estrukturatuaren proposamena (kognizioa, antsietatea, depresioa, erlaziorako zailtasuna, portaeraren alterazioak).

— Portaerazko problemak maneiatzeko jarraitu beharreko irizpideak zehazten dituen idatzizko protokolo bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Portaerazko Problema Tratatzeko Protokoloaren proposamena.

— Portaerazko problemak maneiatzeko hartutako erabakiak egoiliarraren historian jasoko dira.

ARLOA: JARDUEREN PLANA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— Jardueren Plan Orokorra Lasarte-Oriako Udalak aurretiaz onetsitako agiri batean jasota egongo da, eta zentroan zabalkunde publikoa emango zaio.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Jardueren Plan Orokorraren proposamena.

— Planean sartuko dira entretenitzeko eta estimulatzeko jarduerak, eta familiekiko eta komunitatearekiko erlazioak bultzatzekoak.

— Jarduera terapeutikoez zehaztuko dituzte erabiltzaileak barruan hartzeko irizpideak.

— Planaren arduradun bat egongo da, edo planaren arlo bakoitzeko arduradun partzialak.

— Urtero egingo da jardueren planaren ebaluazio idatzi bat, zeinetan jasoko baitira emaitzak, parte-hartzearen indizeak, erabiltzaileen eta begiraleen iritziak, proposaturiko doikuntzak, etab.

ARLOA: ATENTZIO SANITARIOA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

HISTORIA KLINIKOA

— Historia klinikoak, gutxienez, ondoko hauek hartuko ditu: Sartzekoan egiten den balorazio protokolatua eta diagnostikoekin eguneraturiko ebaluazioa, sindrome geriatrikoak, tratamenduak, bilakaera medikoa eta erizaintzakoa, egoera funtzionala eta kognitiboa.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Historia Klinikoaren eredia.

GAITZ KRONIKOAK

— Diabetesa, idorreria, hipertentsioa eta antzeko gaixotasun kronikoen jarraipen protokolatua eta erregistratua egiteko plan bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko ditu ondoko hauek Tratatzeko Protokoloen proposamenak: Hipertentsioa, Diabetesa, Idorreria, presiozko ultzerak, MRSaren kolonizazioak eta infekzioak.

NUTRIZIOZKO EGOERA

— Egoiliar guztien nutriziozko egoera gutxienez urtean behin baloratzen, erregistratzen eta eguneratzen da.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Nutrizioa

Baloratzeko Protokoloaren proposamena.

MEDIKAZIOA

— Erregistro eguneratu bat edukitzea.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Medikazioa Erregistratzeko eredia.

— Prestaketa dosi bakarreko forman izango da.

— Erizainak eguneroko medikazioa prestatuko du, edo, farmaziako zerbitzurik badenean, gainbegiratu egingo du, eta laguntzaileak emango dio erizainak agindutako medikazio ahoz hartzekoa edo bestelakoa.

— «Gida farmakologikoa eta terapeutikoa» hartuko da erreferentzia gisa.

INTERBENTZIO SANITARIO BEREZIAK

Indikazio espezifikoko mugatuen oroigarri bat izatea.

— Datu hauek jasotzeko erregistro bat izatea: Hasierako data, arrazoia, medikuaren indikazioa, jarraipena eta amaierako data.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Interbentzio Sanitarioak Erregistratzeko eredia.

PRESIOZKO ULTZERAK

— Non gertatu diren, non dauden, noiz hasi ziren eta noiz gelditu diren erregistratzea.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Presioko Ultzerak Erregistratzeko eredia.

— Prebentziorako eta jarraipena egiteko protokolo bat edukitzea.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Presiozko Ultzerak Prebenitzeko eta Tratatzeko Protokoloaren proposamena.

MRSA-K KOLONIZATUTAKO EGOILIARRAK

Osasun Sailak prestatutako jarduteko protokoloari jarraituko zaio.

ESFINTERREKO INKONTINENTZIA

— Interbentzio protokolizatua eta erregistratua egitea, honako hauek jasoko dituen: Definizioa, interbentzio-mota eta produktu indikatua.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko ditu Inkontinentziarako Protokoloaren proposamena eta erregistroen eredia.

MANTENTZEKO ERREHABILITAZIOA

— Modu programatuan eta pertsonal kualifikatuak gainbegiratuta egitea.

Enpresa adjudikatariorak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Mantentzeko Errehabilitazioko Protokoloaren proposamena.

— Egiten duten erabiltzaileen erregistro bat izatea, honako hauek jasotzen dituen:

Arrazoa, medikuaren indikazioa, periodizitatea eta bilakaera.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Mantentzeko Errehabilitazioa Erregistratzeko eredia.

PREBENTZIOA, PRESTAKUNTZA ETA HEZIKETA

— Txertaketan protokolo bat izatea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Txertaketetarako Protokoloaren proposamena.

— Egoera terminaleko kasuetan espezifikoki jarduteko protokolo bat izatea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko ditu Zainketa Paliatiboak Emateko Protokoloaren proposamena eta Egoera Terminaleko Kasuetan Espezifikoki Jarduteko Protokoloaren proposamena.

— Infekzioen prebentziorako protokolo bat izatea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Infekzioak Prebenitzeko Protokoloaren proposamena.

KANPOKO KONTSULTAK ETA OSPITALEETARA ERAMAN-EKARTZEAK

— Egoiliarrari laguntzeko protokolo bat edukitzea, zeinetan zehaztuko baita aportatu behar den dokumentazioa (gutxienez: datu pertsonalak, diagnostikoak eta tratamenduak, egoera funtzionala eta kognitiboa, eta kontsultaren edo lekualdatzearen arrazoa), laguntzailearen aurreikuspena eta harentzako abisua.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Zentro Sanitarioetara Deribatzeke eta Laguntzeko Protokoloaren proposamena.

PROZESUA: ZERBITZUAREN AMAIERA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

— Bizitzaren azken uneetan lagun egiteko protokolo bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko ditu Zainketa Paliatiboak Emateko Protokoloaren proposamena eta Egoera Terminaleko Kasuetan Espezifikoki Jarduteko Protokoloaren proposamena.

— Heriotzako kasuetan eta borondatezko baje kasuetan jarduteko protokolo bat izango da, hori globalki kudeatzeko arduradun identifikatu batekin, bai eta arduradun hori ez dagoenetarako ordezeko batekin ere.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Borondatezko Bajetan Espezifikoki Jarduteko Protokoloaren proposamena.

— Heriotza gertatuz gero, protokoloak jasoko du zein sistematikari jarraitu gorputzari tratamendua emateko, senitartekoei abisu emateko, hiletan tramiteei buruzko aholkularitza emateko, erabiltzailearen ondasunak eta agiriak entregatzeko, baja administratiboki jakinarazteko eta kontratua amaitzeko tramiteak egiteko.

— Erabiltzailea beste zentzoren batera lekualdatzen denerako, irteteko txosten sinatuaren eredu bat edukiko du zentroak.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Irteteko Txostenaren eredia.

— Irteteko txostenean jasoko da zainketen banakako plana eta zainketei jarraipena ematea bermatzeko behar den informazio guztia.

ARLOA: ANTOLAMENDU OROKORRA

ESTRUKTURAZKO ELEMENTUAK

KOKALEKUA

— Erabiltzailea ongi kokatua egongo da, bere profilari eta gaitasun kognitibo-erlazionalari dagokien zonan.

— Erabiltzailea konforme egongo da bere logelako lagunarekin eta jangelako mahaikideekin.

ESPAZIOAK PERTSONALIZATZEA

— Erabiltzaileak bere gauzak izango ditu (koadroak, objektu txikiak, telebistako eta irratiko aparatuak, landareak), logelaren posibilitateek eta mobilizatzeko beharrek ahalbidetzen dutenaren barruan.

PRESTAKUNTZA

— Portaeraren alterazioak dituzten pertsonen eman beharreko erantzunari buruz pertsonala prestatzeko plan bat garatzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Portaeraren Alterazioei buruz Prestatzeko Planaren proposamena.

— Osasunaren inguruko alderdi nagusiak (prebentzioa, higiena, adineko pertsonetan ohikoak diren patologiak) lantzeko prestakuntza jarraitua garatzea pertsonalarentzat, eta sentibilizaziokoa eta informaziokoa egoiliarrentzat.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Prestakuntza Jarraiturako Planaren proposamena.

ZENTROAREN EREDU ASISTENTZIALA

— Zentroaren irizpide asistentzial nagusiak jasoko dituen dokumentu bat edukitzea.

Enpresa adjudikatarioak bere Proposamen Teknikoan sartu beharko du Zentroaren Eredu Asistentzialaren proposamena.